

UROLA ESKUBALOI TALDEAREN ESTATUTUAK

UROLA ESKUBALOI TALDEAREN KLUBAREN ESTATUTUAK

AURKIBIDEA

- I. KAPITULUA ARAU OROKORRAK** (1. artikulutik 4.era)
- II. KAPITULUA KIDEAK**
- LEHENENGO ATALA: Interesdunak orokorrean (5. artikulua)
 - BIGARREN ATALA: Bazkideak (6. artikulutik 14.era)
- III. KAPITULUA DOKUMENTUEN ARAUBIDEA** (15. artikulutik 18.era)
- IV. KAPITULUA ORDEZKARITZA, GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANOA** (19. artikulua)
- LEHENENGO ATALA: Batzar Nagusia (20. artikulutik 25.era)
 - BIGARREN ATALA: Zuzendaritza Batzordea (26. artikulutik 34.era)
 - HIRUGARREN ATALA: Presidentzia (35. artikulutik 38.era)
 - LAUGARREN ATALA: Idazkaritza (39. artikulutik 41.era)
 - BOSGARREN ATALA: Diruzaintza (42. artikulua)
 - SEIGARREN ATALA: Batzordekideetza (43. artikulua)
 - ZAZPIGARREN ATALA: Xedapen orokorrak (44. artikulutik 46.era)
- V. KAPITULUA HAUTESKUNDE PROZESUA** (47. eta 48. artikulua)
- VI. KAPITULUA ARAUBIDE EKONOMIKOA** (49. eta 50. artikulua)
- VII. KAPITULUA ESTATUTUAK ALDATZEA** (51. artikulua)
- VIII. KAPITULUA DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA** (52. artikulutik 54.era)
- IX. KAPITULUA DIZIPLINA ARAUBIDEA** (55. artikulua)

I. KAPITULUA ARAU OROKORRAK

1. ARTIKULUA.- UROLA ESKUBALOI TALDEA / CLUB BALONMANO UROLA (UROLA E.T. / C.B. UROLA) irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, iraupen mugagabea duena, berezko nortasun juridikoaz eta bere helburuak betetzeko jarduteko gaitasunaz hornitua, bere xedea eskubaloiairen sustapena delarik.

Halaber, helburu izango ditu Elkartea ordezkatzeko eta gizarteratzeko kultur, gizarte, artistiko, zientifiko edo aisialdiko jarduerak sustatzea eta hauetan parte hartzea.

Klubak ahalmen-urritasuna duten pertsonen kirola sustatuko du, unean-unean dagoen eskakizunaren arabera eta eskura dituen giza baliabideak eta baliabide materialak kontuan hartuta. Halaber sustatuko du emakumezkoen kirola, kirol-motak emakumeengana zabaltzeko lana bultzatuz.

Horrek ez du esan nahi, ordea, klubak bere kabuz edo beste entitate batzuen bitartez ezingo duenik jarduera ekonomikorik gauzatu, baldin eta klubaren helburuekin loturaren bat badute edo helburu horien zerbitzura badaude.

2. ARTIKULUA.- Kirol-klubaren eraketa, inskripzioa, aldaketa, desegitea, antolaketa eta funtzionamendua honako lege-xedapen hauen mende egongo dira: Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legea, Kirol klub eta kirol elkarteei buruzko ekainaren 22ko 163/2010 Dekretua, klubaren estatutuak eta aplikagarriak diren gainerako araudiak, eta bere batzar orokorrak eta gainerako gobernu-organismoek hartutako erabaki baliiodunak. Lege-xedapen horiek jasotzen ez duten alderdiei dagokienez, elkarteen alorrean indarrean dagoen araudi orokorra aplikatuko da.

3. ARTIKULUA.- Kasuan-kasuko kirol-kluba atxikitzen den kirol-federazioaren lege-xedapenak aplikatuko zaizkie kirol-klubei, afiliazio horren ondorioz bidezkoa den neurrian.

4. ARTIKULUA.- Kirol-klubak nagusiki Euskadiko Autonomia Erkidegoan jardungo du. Klubaren helbide soziala Legazpi kalea 7 (Zelai Aristi Kultur Etxea), 20700 Zumarraga izango da. Helbidea aldatuz gero baina udalerrria ez, administrazio-organismoak berak erabaki dezake aldaketa, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroari jakinarazita.

II. KAPITULUA KIDEAK

LEHENENGO ATALA Interesdunak orokorrean

5. ARTIKULUA.- Elkartean honako interesdunak izango dira:

- a) **Bazkideak:** Elkartea hiru bazkidez osatua izango da, gutxienez. Elkarteko bazkide guztiak eskubide eta betebeharrak berberak izango dituzte.
- b) **Abonatuak:** Bazkide izan gabe, kuota edo ordainsari bat ordainduz, Elkartean ekintzetara etorri edo parte hartzen duten pertsonak izango dira abonatuak. Elkartea osatzen duten taldeetako teknikari eta ofizialak abonatuak izango dira ordainsaririk ordaindu beharrik izan gabe.

Abonatuak bazkide ere izan daitezke, beti ere bazkide izateko baldintzak betetzen badituzte.

- c) **Kirolariak:** Soldatapean edo soldatarik gabe, Elkartean ordezkari gisa kirolean aritzen diren pertsonak izango dira. Kirolariak bazkide edo abonatu izaera eduki ahal

izango dute, baina kirolari izateko ez da derrigorrezkoa izango bazkide edo abonatu izatea.

BIGARREN ATALA

Bazkideak

6. ARTIKULUA.- Elkarteko bazkide pertsona fisikoak bakarrik izan litezke.

7. ARTIKULUA.- Bazkide koprua mugagabea izango da eta inoiz ez hiru baino gutxiago. Zuzendaritza Batzordeak bazkide berrien onarpena eten ahal izango du, instalazioen mugek hala eskatzen badute.

8. ARTIKULUA.- Kirol-klubeko bazkide guztiak berdinak dira beren eskubide eta betebeharrei dagokienez. Ez da egongo, beraz, haien jatorria, sexua, arraza, erlijioa, hizkuntza, sexu-joera edota beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal edo sozial dela-eta diskriminaziorako biderik emango duen inolako xedapenik.

9. ARTIKULUA.- Kirol-klubeko kidea izateko, honako baldintza hauek bete behar dira:

- a) Adinez nagusia izatea.
- b) Dagokion sarrera-kuota ordaintzea.
- c) Interesa edukitzea kirol-klubaren helburuetan.

10. ARTIKULUA.- Kirol-klubean sartzeko eskaera idatziz bidali behar zaio presidenteari. Presidenteak jakitun jarriko du Zuzendaritza Batzordea eta aurreko artikuluan adierazitako baldintzak betetzen diren ala ez aztertu ondoren eskaera onestea edo baztertzea erabakiko du. Erabaki horren aurka ez da errekurtsorik onartuko.

11. ARTIKULUA.- Kirol-klubeko bazkideek honako eskubide hauek izango dituzte:

- a) Kirol-klubaren helburu espezifikoak lortzeko bidean parte hartzea, indarreko legedian eta estatutuetan xedatutakoari jarraituz, eta helburu horiek bete daitezela exijitzea.
- b) Kirol-kluba libreki uztea.
- c) Kirol-klubaren jarduerak ezagutzea eta beraren dokumentazioa aztertzea.
- d) Kirol-klubaren baitan bere iritzia askatasunez adieraztea.
- e) Klubaren ordezkartza eta gobernu-organoei hautesle eta hautagaiak izatea, betiere adinez nagusiak badira eta jarduteko gaitasun osoa badute.
- f) Haien aurka diziplina-neurriak ezarri baino lehen entzunak izatea, bai eta neurri horiek funtsatu duten gertaeren gaineko informazioa jasotzea ere; gainera, isunik badagokio, horri buruzko erabakia arrazoitua izango da.
- g) Legearen edo estatutuen aurkakotzat jotzen dituzten kirol-klubeko organoen erabakiak aurkaratzea.

12. ARTIKULUA.- Kirol-klubeko bazkideek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Kirol-klubaren helburuak partekatzea eta horiek lortzeko bidean kolaboratzea.
- b) Estatutuen arabera bazkide bakoitzak ordaindu behar dituen kuotak, derramak eta bestelako ekarpenak ordaintzea.
- c) Kirol-klubeko organoek hartzen dituen baliozko erabakiak ontzat hartzea eta betetzea.
- d) Estatutuetatik eta araudietatik ondorioztatzen diren gainerako betebeharrak.

13. ARTIKULUA.- Bazkide izateari utziko zaio honako kasu hauetan:

- a) Norberaren borondatez.
- b) Heriotzagatik.
- c) Bazkide-kuotak arauz ezarritako epean ez ordaintzeagatik, betiere berandutze horren arrazoiak ez badira behar bezala justifikatzen Zuzendaritza Batzordearen iritziz.

- d) Estatuetan edo araudietan ezarritako betebeharren ez-betetze larri batengatik isuna jasotzeagatik, edo Batzar Nagusiak edo Zuzendaritza Batzordeak hartutako baliozko erabakien ez-betetze larri batengatik.

14. ARTIKULUA.- Kirol-klubeko kideek isuna jaso dezakete, betiere alde zuzenetik administrazio espedientea izapidetu eta interesatuari entzundua eman ondoren. Isunak, hasi aldi baterako eskubideak galtzetiketa kirol-kluba behin betiko uzterainokoak izan daitezke.

III. KAPITULUA DOKUMENTUEN ARAUBIDEA

15. ARTIKULUA.- Kirol-klubak honako liburu hauek, gutxienez, edukiko ditu antolatuta eta eguneratuta:

- a) Bazkideen Erregistro Liburua.
- b) Kide anitzeko organoen akta-liburuak.
- c) Kontabilitate-liburuak.
- d) Hala badagokio, zor-tituluen edo ondarezko zati alikuotaren erregistro-liburuak.

Aipaturiko liburu horien kudeaketa-lanak ez du kentzen beste xedapen orokor batzuen ondorioz egin beharreko dokumentuen gaineko betebeharrak egin behar ez direnik.

Liburu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan legeztatuko dira, bertako araudi erregulatzaileraren arabera.

Aipaturiko liburuak paperean edo euskarri informatikoan gorde ahal izango dira.

16. ARTIKULUA.- Bazkideen Erregistro Liburuan haien izen-abizenak, NA eta helbidea jaso beharko dira. Gainera, alta eta baja egunak ere idatzi beharko dira.

17. ARTIKULUA.- Akta-liburuetan Batzar Nagusiak eta Zuzendaritza Batzordeak eginiko bilerak jasoko dira. Eguna, parte hartzaileak, aztergaiak eta hartutako erabakiak aipatzen direlarik. Kirol-klubaren presidentek eta idazkariak sinatu beharko dituzte aktok.

18. ARTIKULUA.- Kontabilitate-liburuetan kontabilitatearen alorrean indarrean dauden xedapenek eskatzen dituzten datu eta mugimenduak jaso beharko dira; hartara, klubaren ondarearen berri zehatza emango dute, eta haren finantza-egoeraren eta emaitzaren berri zehatza ere, bai eta ondasunen inbentarioarena ere.

IV. KAPITULUA ORDEZKARITZA, GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANOK

19. ARTIKULUA.- Hauek dira kirol-klubaren organoak:

- a) Batzar Nagusia
- b) Zuzendaritza Batzordea:
- c) Presidentzia

LEHENENGO ATALA Batzar Nagusia

20. ARTIKULUA.-Batzar Nagusia gobernu-organo gorena da, eta boto-eskubidea duten bazkide guztiek osatzen dute.

Elkartearen presidentea izango da Batzar Nagusiko presidentea.

21. ARTIKULUA.- Hona zeintzuk diren Batzar Nagusiaren gutxieneko zereginak:

- a) Presidentea edo, hala badagokio, Zuzendaritza Batzordea aukeratzea, bakarka, askatasunez, zuzenean eta isilpean egindako bozketaren bidez.
- b) Kontuak eta aurrekontuak onartzea.
- c) Erregelamenduak onartzea.
- d) Estatutuak onartu eta aldatzea.
- e) Kirol-klubaren bat-egitea, zatiketa, eraldaketa edo desagitea onartzea.
- f) Dirua maileguan hartzea.
- g) Bazkideek ordaindu beharreko kuotaren zenbatekoa ezartzea.
- h) Higiezinak besterentzea eta zergapetzea.
- i) Eskualda daitezkeen zor-titulu adierazgarriak edo ondarezko zati alikuotarena ematea.
- j) Presidentearen aurkako edo, hala badagokio, Zuzendaritza Batzordearen aurkako zentsura-mozioa onartzea.
- k) Badagokio, administrazio-organoko kideen ordainsariaren baldintzak onartzea.

22. ARTIKULUA.- Batzar Nagusiak ohiko bilkurak egingo ditu, gutxienez urtean behin, bere eskumeneko gaietaz aritzeko. Bilkura bereziak ere egingo ditu, sortzen diren gainerako gaiak aztertzeko.

23. ARTIKULUA.- Kirol-klubeko presidenteari dagokio Batzar Nagusiaren ohiko bilkurarako deia egitea. Hori ezinezkoa bada edo presidenteak deialdia epearen barruan egiteko obligazioa betetzen ez badu, Zuzendaritza Batzordeak edo edozein bazkide-taldekin egin dezake deialdia, baldin boto-eskubidea duten bazkideen %10era iristen bada.

Kirol-klubaren presidenteari edo boto-eskubidea duten bazkideen %10era iristen den edozein bazkide-talderi dagokio Batzar Nagusi Berezirako deialdia egitea.

24. ARTIKULUA.- Batzar Nagusirako deia, dela ohikoa dela berezia, kirol-klubaren webgune ofizialean jarritako iragarki baten bidez jakinaraziko zaie bazkideei. Iragarkia 15 egun aurretik jarriko da, gutxienez, salbu eta premiazko epeen kasuetan edo ezustean gertaturiko larrialdien kasuetan. Webgunerik ez balego, jakinarazpena posta arruntaren bidez edo posta elektronikoaren bidez bidaliko da.

Deialdian batzarraren eguna, data, ordua eta gai-zerrenda, aztertu beharreko gai guztiak agertzen direlarik, jasoko dira. Batzarra ohikoa denean galde-eskeen atala sartuko da.

Gai-zerrendan azaltzen diren aztergaiei dagokion dokumentazioa bazkideen eskura izango da hamar egun lehenago, gutxienez.

25. ARTIKULUA.- Batzar Nagusia, dela ohikoa dela berezia, baliozkotzat joko da baldin eta lehenengo deialdian kideen gehiengo bertarutzen bada. Bigarren deialdian, baliozkotzat joko da edozein dela ere bertarutzen diren kideen kopurua. Bigarren deialdian, bilera ezingo da egin harik eta aurreneko deialditik hogeita hamar minutu pasa arte.

Batzar Nagusian hartutako erabakiak gehiengo soilaz erabakiko dira, kide bakoitzak boto bat duelarik. Berdinketa emanez gero, presidenteari kalitateko botoak erabakiko du.

BIGARREN ATALA Zuzendaritza Batzordea

26. ARTIKULUA.- Zuzendaritza Batzordea kirol-klubaren administrazio eta gobernu-organoa da. Batzar Nagusian hartutako erabakiak gauzatzea dagokio, baita estatutu honek eta elkarteko barne-araudiak ematen dizkion eginkizunak ere.

27. ARTIKULUA.- Zuzendaritza Batzordea zazpi kidez osatua egongo da, honako karguak beteko dituztelarik: Presidentea, Presidenteordea, Idazkaria, Zuzendari-teknikoa (elkarteari estamentu teknikoaren ordezkari gisa) Diruzaina eta bi Batzordekide. Zuzendaritza Batzordeko

kideen hautaketa, estatutu hauetako 44. artikuluko bigarren paragrafoan jasota azaltzen den bezala, presidentzialista eran egingo da.

Zuzendaritza Batzordeko kideek eskubide osoko bazkideak izan beharko dute, dagozkien eskubide zibilen jabe eta indarrean den legedia ezartzen dituen bateraezintasunik ez dutela.

Zuzendaritza Batzordea bere eginkizunak era egokian aurrera eramateko behar den aldi guztietan bilduko da.

28. ARTIKULUA.- Hona zeintzuk diren Zuzendaritza Batzordearen zereginak:

- a) Erakundearen kudeaketan lagundu, helburak betetzen direla zainduz, bereziki ezarritako kirol-programa.
- b) Batzar Nagusiak emandako ildoak kontuan izanik, kudeaketa administratiboa eta ekonomikoa burutu.
- c) Beharrezkoak iruditzen zaiakion batzordeak eratu eta zuzenduko dituzten pertsonak izandatu.
- d) Elkarteko kirol-jarduerak antolatu.
- e) Batzar Nagusian onartuko diren inbentarioa, balantzea eta urteko memoria prestatu.
- f) Ondoren Batzar Nagusian onartuak izateko elkarteko barne-araudiak idatzi.
- g) Sortu daitezken gatazkak ebatzi, horretarako elkarteko barne-araudia ezarri.

29. ARTIKULUA.- Zeregin horietako bat edo guztiak klubean sorturiko batzorde exekutibo bati edo kideren bati eskuordetu ahalko dizkio Zuzendaritza Batzordeak.

30. ARTIKULUA.- Zuzendaritza Batzordearen bilkuretarako deialdia egitea kirol-klubaren presidentearen edo, haren ordeztan, presidenteordearen eginkizuna izango da. Deialdia eta gai-zerrenda, dagozkion dokumentazioarekin batera, kirol-klubaren webgune jarritako iragarki baten bidez jakinaraziko zaie Zuzendaritza Batzordeko kideei. Iragarkia bi egun aurretik jarriko da, gutxienez, salbu eta premiazko epeen kasuetan edo ezustean gertaturiko larrialdien kasuetan. Webgunerik ez badago, jakinarazpena posta arruntaren bidez edo posta elektronikoaren bidez bidaliko da.

31. ARTIKULUA.- Batzar Nagusia baliozkotzat joko da baldin eta kideen erdia gehi bat bertaratzen badira, betiere horietako bat presidentea edo presidenteordea bada.

Halaber baliozkotzat joko da baldin eta, aurretik deialdirik egin gabe ere, Zuzendaritza Batzordeko kide guztiak bertaratzen badira eta aho batez hala erabakitzen badute.

32. ARTIKULUA.- Kirol-klubaren presidentea edo, haren ordeztan, presidenteordea izango da Zuzendaritza Batzordeko burua eta Batzordearen jarduna koordinatuko duena.

33. ARTIKULUA.- Zuzendaritza Batzordeak, edo bertako kideek banaka, honako kasu hauetan utziko dute kargua:

- a) Dimisioa ematen duelako.
- b) Heriotzagatik.
- c) Zentsura-mozioa onartu delako.

Kideen banakako kargu-uzteen ondorioz Zuzendaritza Batzorde osoarena gertatzeko, kideen erdiek gutxienez utzi behar dute beren kargua.

Zuzendaritza Batzordearen kargu-uztea gertatzen bada, Batzorde Kudeatzaile bat eratuko da eta hilabeteko epean, gehienez, Batzar Nagusi Berezirako deia egingo du, Zuzendaritza Batzorde berria hautatzeko. Hori ezinezkoa bada, edozein bazkide-talde egin dezake deialdia, baldin boto-eskubidea duten bazkideen %50era iristen bada.

Zuzendaritza Batzordeko kide batek edo gehiagok banaka kargua uzten badute, baina hala ere kideen %50ek beren karguari eusten badiote, postu hutsak kooptazio bidez bateko dira,

alegia, Zuzendaritza Batzordeko kideek askatasunez aukeratuko dituzte kargu berriak beteko dituzten pertsonak. Kooptazio bidez izendatzen diren kideak egiten den lehenengo Batzar Nagusian berretsiko dira.

34. ARTIKULUA.- Ekintza engainagarri edo axolagabeak eragindako kalte eta zorreatatik elkarrearen, bazkideen eta bitartekoen aurrean erantzunle izango dira Zuzendaritza Batzordeko kideak. Halaber, beraien eginkizunetan eginiko ekintzen edo utzikeriaren erantzule izango dira legearen aurrean.

HIRUGARREN ATALA

Presidentzia

35. ARTIKULUA.- Presidentea kirol-klubaren organo exekutiboa da, klubaren legezko ordezkariak dauka, Batzar Nagusiarako eta Zuzendaritza Batzorderako deia egiten du, beraien buru da eta eta horiek hartutako baliozko erabakiak exekutatzeko betebeharrak dauka.

36. ARTIKULUA.- Presidentetza, estatutu hauetako 44. artikuluko bigarren paragrafoan jasota azaltzen den bezala, presidentzialista eran hautatua izango da.

37. ARTIKULUA.- Presidentea Batzar Nagusiko kideek hautatuko dute Batzar Nagusiko kideen artean bakarka, askatasunez, zuzenean eta isilpean egindako bozketaren bidez. Boto gehien jasotzen dituen pertsonak hartuko du presidente-kargua. Presidentea berrautaketara aurkeztu ahal izango da.

38. ARTIKULUA.- Presidenteak estatutu hauetako 33. artikuluan adierazitako arrazoiak batentatik utzi ahal izango du kargua. Kirol-klubeko Presidentearen postua hutsik gelditzen bada, aipaturiko arau horretan aurreikusitako moduan jokatu da.

LAUGARREN ATALA

Idazkaritza

39. ARTIKULUA.- Kide egiteko eskaerak jaso eta bideratu, Kirol-klubaren organo desberdinak egiten dituzten bileren bilera-agiria jaso, bazkideen fitxategia eta erregistro liburuaren ardurak izan eta web orriaren eta administrazio lanen kuadeketa izango dira Idazkariaren eginbeharrak.

40. ARTIKULUA.- Era berean Idazkariak funtzio hauek beteko ditu:

- a) Elkarrearen postaz arduratu.
- b) Hartutako erabakien zertifikatuak jaulki.
- c) Presidentearen sinadurarekin batera, Elkarreak eginiko kontratuak sinatu eta baimendu.
- d) Idazkari lanak egin Elkarteko organo elkargokide guztietan.

41. ARTIKULUA.- Bere betebeharrak gauzatzeko laguntzaileez edo enplegatuz lagundu ahal izango da.

BOSGARREN ATALA

Diruzaintza

42. ARTIKULUA.- Zereginak:

- a) Diruzaina Elkarteko arlo ekonomikoaren arduraduna izango da. Kontularitza liburuan xahupenak eta diru sarrerak eta hauen jatorria jasoko ditu.
- b) Ez du ordainketarik egingo Presidentearen oniritzi gabe.

- c) Urte bakoitzeko lehen hilean egoera ekonomikoaren emaitzak gauzatu eta bazkideei jakinaraziko die.

SEIGARREN ATALA Batzordekidetza

43.- ARTIKULUA.- Batzordekideak beraien karguari dagokion betebeharrak izango dituzte, hala nola delegatze edo mandatuz agindutako beste edozein.

ZAZPIGARREN ATALA Xedapen orokorrak

44. ARTIKULUA.- Kirol-klubaren Zuzendaritza Batzordea eta presidentea lau urterik behin hautatuko dira, bakarka, askatasunez, zuzenean eta isilpean egindako bozketaren bidez, eta hautaketan bazkide guztiek parte hartu halako dute. Bozketan ez da boto-ordezkaritzarik onartuko.

Aipatutako hautaketa era Presidentzialaistan egingo da. Bertan bakarka, askatasunez, zuzenean eta isilpean egindako bozketan Presidente hautatuko da eta honek, elkarteko kideen artean, izendatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kideak.

Kirol-klubeko organoetako kideek jardunean jarraituko dute kide berriak karguaz jabetzen diren arte, non eta ez den gertatzen horretarako ezintasun ageriko bat.

Zuzendaritza Batzordeko kideek beren kargua betetzeagatiko ordainsariak jaso ahalko dituzte, betiere Batzar Nagusiak berariaz onartzen badu, beste aztergaietatik aparteko gai moduan, eta bertaratutako kideen bi herenak alde agertzen badira.

45. ARTIKULUA.- Batzar Nagusiak Zuzendaritza Batzordeko kide guztien edo haietako baten edo batzuen erantzukizuna exjitu ahal izango du zentsura-mozio baten bidez. Mozio horrek, aurrera egingo badu, berariaz deitutako bilkuran bertaratutakoen bi herenen aldeko botoa beharko du.

Zentsura-mozioa idatziz aurkeztu beharko zaio Zuzendaritza Batzordeari, bazkide guztien %10eko babesarekin. Batzar Nagusi Berezia aztergai bakarria izango du: zentsura-mozioa eztabaidatzea eta haren gaineko ebazpena ematea.

Zuzendaritza Batzorde osoaren aurkako mozio-zentsura onartzeak bertako kide guztien kargu-uztea ekarriko du, kirol-klubaren Presidentearena barne. Zentsura-mozioa batzordekide baten edo batzuen aurkakoa bada, hura onartzeak batzordekide horien kargu-uztea soilik ekarriko du.

Zentsura-mozioak presidente berria izateko hautagai baten proposamena jaso dezake, edota, hala badagokio, Zuzendaritza Batzorde osoarena edo bertako kide batena edo batzuenena. Hautatutako kargu berrien agintaldia aurreko agintaldiari bukatzeko falta zaion adinakoa izango da.

46. ARTIKULUA.- Inola ere ez dira bateragarriak izango kirol-klub baten Presidente kargua eta klub hori atxikita dagoen kirol-federazioaren presidentea kargua.

Pertsona bera ezingo da izan batera kirol-modalitate bereko eta kategoria bereko kirol-klub baten baino gehiagoren presidentea.

V. KAPITULUA HAUTESKUNDE PROZESUA

47. ARTIKULUA.- Klubaren hauteskunde-prozesuak ekainaren 22ko 163/2010 Dekretuan ezarritakoa beteko du, bai eta estatutu hauetan eta Batzar Nagusiak onartzen dituen gainerako hauteskunde-araudietan ezarritakoa ere.

Elkarteak ez du ekainaren 22ko 163/2010 Dekretuko 47. artikulua bete beharrik izango, beraz ez da hauteskunde-batzorderik izango. Hautagaitzen aurkezpena eta botazioa hautaketa bakoitza egiteko deituriko Batzar Nagusian bertan egingo dira.

48. ARTIKULUA.- Administrazio-organoetarako aurkezten diren hautagaitzetan emakumeen eta gizonen arteko oreka gordeko da, arrazoi objektiboak tarteko ezinezkoa denean izan ezik.

Hautagaitza bakarra baldin badago, zuzenean aukeratuko da, inolako bozketarik egin behar izan gabe.

VI. KAPITULUA ARAUBIDE EKONOMIKOA

49. ARTIKULUA.- Kluba berezko aurrekontu eta ondare araudiaren mende egongo da. Ekonomia-ekitaldia urtekoa izango da, eta amaiera urte bakoitzeko urtarrileko bigarren astean izango du.

Klubak ez du fundazio-ondarerik, eta bere jarduerak aurrera eramateko honako baliabide hauek erabiliko ditu:

- a) Batzar Nagusiak, hala badagokio, erabakitzen dituen sarrera-kuotak edo/eta aldizkako kuotak.
- b) Berez dagozkion ondasun eta eskubideen produktuak, bai eta jasotzen dituen diru-laguntzak, dohaintzak, utziriko ondarea eta babes-laguntzak ere.
- c) Estatutuetan adierazitako helburuei begira klubak egiten dituen legezko jardueretatik eratorritako beste diru-sarrerak.

Diru-sarrera guztiak, kirol-ekitaldietan eskuratutakoak barne, oso-osorik erabiliko dira helburu soziala garatzeko. Inola ere ez da onartuko etekinak bazkideen artean banatzerik, ezta haien ezkontideen edo antzeko afektibitate-harremana duten bizikideen artean ere, edo ahaideen artean. Orobat, ezingo da doako lagapenik egin irabazi-asmoa duten pertsona fisiko edo juridikoen alde.

Ondasun higiezinak erabiltzeko, besterentzeko edo zergapetzeko, Batzar Nagusian bertaratutako bi herenen gehiengo adostutako erabakia beharko da.

50. ARTIKULUA.- Kirol-kluba deseginez gero, edo bazkideren bat egotziz gero, pertsona horrek eskubidea izango du hasieran ordaindu zuen ondare-partaidetzaren diru-kopurua edo beste diru-ekarpenak erreuperatzeko, salbu eta bazkide-tza-kuota moduan ordaindutako kopuruak. Horretarako, baina, ezinbesteko baldintza da ondare-murrizketaren ondorioz hirugarren pertsona edo entitateek kalterik ez jasotzea. Banantze kasuetako ondare-partaidetza berreskuratzeak ez du zertan eraginik izan klubaren irabazi asmorik gabeko izaeran. Batzar Nagusiari dagokio artikuluko honetan adierazitako erabakiak abian jartzea.

VII. KAPITULUA ESTATUTUAK ALDATZEA

51. ARTIKULUA.- Estatutu hauek aldatzeko edo indargabetzeko, berriaz deitutako Batzar Nagusi Berezia erabakia beharko da, alegia, bertaratutako bazkideen bi herenen gehiengo kualifikatuaren adostasunez hartutako erabakia.

VIII. KAPITULUA:
DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

52. ARTIKULUA.- Kluba Batzar Nagusiaren erabakiz desegingo da, estatutu hauek aldatzeko ezarri diren baldintzak eta gehiengoa errespetatuta, edo ebazpen judizialaren bidez.

53. ARTIKULUA.- Behin kirol-kluba deseginez gero, likidazio-epea hasiko da. Epe hori amaitu arte klubak bere nortasun juridikoari eutsiko dio.

Administrazio-organoko kideak likidatzaile bihurtuko dira, salbu eta Batzar Nagusiak edo, hala badagokio, desegitea ebatzi duen epaileak beste batzuk izendatzen baditu; eta 163/2010 Dekretuaren 69.3 artikuluan xedatutako funtzioak beteko dituzte.

Likidazio-fasean dagoen bitartean, kirol-klubak "likidazio-fasean" esaldia erantzi beharko dio bere izenari.

54. ARTIKULUA.- Kirol-kluba desegin eta likidatuz gero, haren ondorioz geratzen den ondare garbia udalerrri bereko, edo hala badagokio, Lurralde Historiko bereko beste kirol-entitate baten bitartez kirola sustatzeko eta praktikatzeko helburuetarako erabiliko da.

IX. KAPITULUA:
DIZIPLINA ARAUBIDEA

55. ARTIKULUA.- Kirol-klubak bazkideen gainean duen diziplina-ahalmena klubaren beraren araudiek eta erabakiek ezarriko dute, eta hartzen dituen erabakien kontra ezingo da errekurtsorik jarri kirol-federazioetan edo Kirol Justiziako Euskal Batzordean. Kirol-klubak diziplinaren alorrean hartzen dituen erabakiak jurisdikzio arruntean aurkaratu ahal izango dira.

Zumarragan, 2011ko ekainaren 8an.

IDAZKARIA



Jorge Gómez Domínguez

PRESIDENTEA



Mikel Miren Soraluze Aranburu